

BAIMEN ESKAERA OBRAK EGITEKO DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO KULTURA ONDASUNETAN

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Donostiako Elizbarrutiaren titulartasuneko edozein motatako kultur ondasunetan esku hartzeak egiteko ezinbestekoa da Foru Aldundiko baimena izatea, nahiz eta ondasun horiek Euskal Kultura Ondarearen Legearen babesa ez izan (Donostiako Elizbarrutiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, 2009ko maiatzaren 8koa).

Nork tramitatzen du

- KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DPTUA.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia
- Ondare Historiko-artistikoaren, eta Artxiboen Zerbitzua

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Forfmularioa](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

- Proiektu teknikoa (jarduketak hala eskatzen duenean): estalkiaren egiturari buruzko lanak; fatxadetan sakoneko jarduketak, drainatzeak, instalazio elektrikoko lanak eta berokuntza aurreikusten diren lanak
- Obra txikietarako (eraikuntza-munta txikiko obrak, arkitektura-konfigurazioari eta eraikinen funtsezko eta egiturazko elementuei eragiten ez dietenak):
 - Egin beharreko obraren memoria, materialak eta kalitateak adieraziz
 - Egin beharreko jarduera ulertzen dela bermatuko duen informazio grafikoa.
 - Aurrekontu xehatua

- Donostiako Gotzaindegiaren baimena esku hartzeko
Erretaulen, horma-pinturen eta organoen gaineko esku hartzeen kasuan, enpresa lizitatzailerek zaharberritze proiektua idatziko dute, aurrekontua jasota, memoria teknikoan, aurrekontu zenbatetsian eta ezaugarri teknikoan agirian oinarrituta; lehen bi kasuetan, Gordailua, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroaren kontura izango da, eta hirugarren kasuan, berriz, Gipuzkoako Organoak eta Armonioak Jontserbatzeko eta Zaharberritzeko Batzorde Teknikoaren kontura.

Eskaera moduak

» Internet

Internet bidezko eskaera

- **Bide telematikoz:**
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>

Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

Aurreikusitako epea: hilabete bat

Legezko epea: hiru hilabete

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

» Jakinarazpen elektronikoa

ARAUDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Elizbarrutiaren arteko lankidetzaz hitzarmena, 2009ko maiatzaren 8koa, eta 2017ko maiatzaren 18ko Foru Aginduaren bidezko hamabosgarren klausularen aldaketa: Bederatzigarren, hamargarren, hamalagarren eta hamabosgarren klausulak (2017ko maiatzaren Foru Aginduren bidez aldatuta) .

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

1. Dokumentazioa erregistratzea, eta zuzentzea, behar bada.
2. Ondare Historiko-artistikoaren, eta Artxiboen Zerbitzuko arduradunak dokumentazioa aztertu eta ebazpen proposamenaren txostena egingo du.
3. Idazkaritza Teknikoak ebazpena idatziko du
4. Kultura Zuzendaritza Nagusiko titullarrak ebazpena onartzea eta jakinaraztea:

- Obra sustatzaileari
- Kultur ondarea kokatzen den Udalari

Informazio gehigarria

Ebazpenerako aurreikusitako epea: hilebete bat